

telebista ♦ irratia

Euskadiko Sei Orduak zuzenean ETB-1ean

Fermin Aramendi eta Txomin Perurena izango dira emankizunaren arduradunak

Erredakzioa / Donostia

Gaur arratsaldean, Donostiako Anoetako belodromotik zuzenean, Euskadiko Sei Orduak eskainiko ditu ETB-1ek, 15:30etatik aurrera. Hala, Fermin Aramendi kazetariak eta Txomin Perurena txirrindulari ohiak emango diete ikusleei urtero egiten den kirol jaialdi ezagun horren berri.

URTERO bezala, aurten ere Euskadiko Sei Orduak emango ditu zuzenean Euskal Telebistako lehen kateak. Hala, arratsaldeko 15:30etatik gaueko 21:00etara Anoetako belodromoan zer gertatzen den azalduko du zuzenean ETBek, Fermin Aramendi eta Txomin Perurenaren bitartez. Era berean, Iñigo Aiestaran eta Koldo Aldalur kazetariak ere belodromoan izango dira, eguneko protagonista nagusien hitzak biltzeko.

Euskadiko Sei Orduen emankizunean, hainbat etenaldi ere egingo ditu Euskal Telebistak. Hala, arratsalde-



JAGOBA MANTEROLA

Pistako txirrindularitza izango da berriro ere nagusi Euskadiko Sei Orduetan.

ko 17:55etik aurrera, Atletico Madrid-Barcelona B futbol partiduarekin hainbat konexio egingo ditu ETBek. Arratsaldeko 20:00etan, berriz, Ana Aizpirik aurkeztutako *Gaur Egun* albiste-

giaren txanda izango da. Ondoren, 21:00etan Valencia-Deportivo futbol partidua hasi arte, Euskadiko Sei Orduak berreskuratuko dute protagonismoa.

Ohi bezala, txirrindulari-

tza izango da Euskadiko Sei Orduetako protagonista nagusia aurten ere. Hala ere, aizkolak, sokatirak, bertsolaritzak eta abarrek ere lekua izango dute bertan.

txoritxoari mokoka

♦ Ines Intxausti

BUKATU da behingoz *pit bull* arrazako txakurren antzutze dantza. Ez nuen burua gai horren sakontasunean sartu nahi, eta ondo gorde ditut antzutzeari —giza mota guztien antzutzeari buruz, noski— ditudan teoria intimoak. Paradoxikoa honako hau da: EAEko parlamentuan gertatutakoaren aferak kendu dizkie txakurrak ahotik tertulianoei. Eskerrak lekukoa gehiegizko gertakizuna izan zen. PPK eta PSOEek ez zuten protokoloa errespetatu, eta bozketa besteak gabe egin nahi izan zuten. Hori Rafael Larreinak argitu behar izan zuen; bestela, Rosa Diezen eta Carlos Iturgaitzen bertsioarekin, hau da, ezinago asaldaturik dabilzanen bertsioarekin geratu beharko genuen. Madrilgo belarri mediatikoentzat ezti informatiboa, noski.

Baina gaut ez dut horri buruz idatzi nahi. Lehenbailehen txoke terapia behar dut. Anabel Alonso eta Tete Delgado aktoreek programa berri bat aur-

Eragozpenen oztopoak

kezten dute A3en. Joan den eguneko gonbidatua Jesulin de Ubrique mutil burugabea izan zen. Kate pribatuak *Esta noche hablamos de sexo* eta *La noche prohibida* egin zuenetik, ez du galdu sexua *leit motiv* gisa erabiltzeko gogoia programa berriak asmatzerakoan. Astoen hazia, masturbazioa eta miopia izan ziren lehengoan jorratu zituen gaiak, erreportaiak txantxetakoak baitziren. Telebisiboki oso antzina-koa den ideia batean oinarritzen da saioa. Hiru dokumenturen artean gezurrezkoak zein diren eta zein ez asmatu behar duzu. Beno, Jesulin Zezen Nobel saridunak asmatu behar zuen. Ezin dugu esan saioa *light* atera zitzaizela. Ezta gustu txarrekoa ere, nahiz eta Jesulinekin, Tetekin eta Anabelek ez osatu munduko *menage*-rako hirukote kitzikagarria. Saioak ez zuen intereseko

ezer. Hau da, ez zuen barregaririk ematen. Egun edozein umek egin baitezake halako txantxa zaharra eta errepi-
korrak.

Saioa desagertzen bada ere, ez gara jabetuko. Oharkabean pasatzeko modukoa baino gehiago, ikustezina da alde guztietatik. Eta artikulu honetan horrebesta toki eskaintzea ere gehiegi iruditzen zait. Maddalen Iriarteren hutsak zuzentzeko erabili eta baliagarrria balitz sikiera! A3koek nola dirauten bizirik misterioa da. Oraingoz, *Sorpre-
sa, sorpresa* eta horrelakoan audientziaren etekinak kobratzen dabilta. Eta Rosa Villacastinen *glamour* arrun-
tean oinarritu dituzte beren estilo libu-
ruetako lerro merkeenak. Antonio Asensioren alaba Ingrid Lorenzo San-
zen seme Fernandorekin ezkondu zene-
tik, talentu ihesa nabaritutako zuen kate-
ak. Bai horixe. Eta futbola gizartearen oinarritzko interes orokorreko gauza da. Ole PePe!

laburrean

'Iparraldea' saioa gaur itzuliko da ETB-1era

Agustin Errotabehere eta Firmin Arkotxa aurkeztu-
rik, *Iparraldea* saioa gaur 11:55etan itzuliko da ETB-1era. Bertan, Iparraldeko egunerokotasunaren inguru-
ruko gaiak jorratuko dira astetik atera. Gaur, bi ardatz nagusi izango ditu saioak. Alde batetik, euska-
raren inguruko erreportaia eskainiko dute. Bestetik, Jean Haritzelhar Euskal-
tzaindiko lehendakaria izango da saioko gonbida-
tua.



Euskal Herriko eskuz binakako pilota txapelketako partidua T5ko 'Frontón' saioan

Ariznabarreta-Arretxek Tirapu-Armendarizen aurka gaur arratsaldean jokatu-
tuko duten partidua eskai-
niko du 17:40tik aurrera T5ko *Frontón* saioak. Ber-
garako pilotalekuan izango da partidua. Asegarce enpresako pilotariak joko-
tzen ari diren Euskal Herri-
ko eskuz binakako pilota txapelketakoa da.

Robert Capa argazkilaria TVE-1eko 'Informe Semanal' saioan

Robert Capa argazkilaria handiaren inguruko erre-
portaia eskainiko du gaur 21:30etan Baltasar Magrok TVE-1eko *Informe Semanal* saioan. Hain zuzen ere, Capak Espainiako Gerra Zibilean egindako 200 argazki jaso berri ditu Madrilgo Reina Sofia muse-
oak. Era berean, txakurren erasoak, etorkinen seme-
alabek mediku laguntza jasotzeko dituzten arazoak eta Gibraltarren arrantza-
leekin izandakoak ere aztertuko dituzte saioan.